

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Borondatezko epean biltzea 2019ko zergak eta tasak

Nik, Natividad Lopez de Munain Alzolak, Burgeluko Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: otsailaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, 2019ko ordainarazpen hauek:

- Ibilgailuen gaineko zerga, 2019.
- Ur hornidura, estolderia eta arazketa zerbitzuaren tasa, 2018ko 2. seihilekoa.

A) Borondatezko epea: 2019ko otsailaren 15etik apirilaren 15era.

B) Premiamenduzko epea: apirilaren 16tik aurrera, eta hasiera emango zaio administrazio premiamenduko betearazte bideari, dagokion errekargua aplikatuta, indarrean dagoen Dirubiketa Arautegi Orokorraren arabera.

Ordaintzeko lekua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek Kutxabankek Dulantzina daukan bulegoan (Dulantzi kalea, 11) egingo dute ordainketa borondatezko epean (otsailaren 15etik apirilaren 15era), bulego orduetan.

Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Burgeluko udaletxean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2019ko otsailaren 14a

Alkatea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA